

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 279. zenbakia. 2019ko ekaina

PICOS DE EUROPA



**Ander
eta Julen,
mendian
lagun**

irale

Hortz Klinika
Clínica Dental



Abantaila da urteko sasoi honetan ortodontzia zein inplanteak egitea. Horrela, haiek ekar ditzaten ondoezak errazago pasa daitezke, norberaren eskola edota lanetan eraginik izan gabe.

Eta zenbat eta lehenago hasi,
orduan eta azkarrago amaitu!

Invisalign, haginak zuzentzeko teknika gardena;
inplanteak, murtxikatzeko;
haginak berrezartzeko eta
gure taldea irrifarrerik onena ateratzeko!

Oporrak aprobetxatu
tratamendu bereziak
egiteko!



Zeharkalea 8, behea · 943 17 71 34 · www.clinicadentalirale.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ander Garitagoitia.

LAGUNTZAILEAK:

Peru Alava, Begoña Azpiri,
Ongarai Eskola, Fernando
Etxebarria, Jose Gregorio
González, Florita
Gorritxategi, Antonio
Hernández 'Cuco', Ana
Izagirre, Arrate Izagirre,
Patxi López, Andoni
Manchobas, Juan Carlos
Martín, Valentín Mugarza,
Ana Isabel Recalde eta
Yolanda Ruiz.

ARGAZKIAK:

Alex Álvarez, Amaia
Arginzoniz, Ongarai Eskola,
Ander Garitagoitia,
Iñaki Iturriagoitia,
Mallabia FT, Juan Carlos
Martín, Valentín Mugarza,
Ermuko Udala eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-21 3/1994.

*Drogeteniturririk ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Erronda kantua

Matxalen Busturiko

Matxalen Busturiko
izan balitz ona,
ez zonan etorriko
Bustiritik hona.

Hasi goiko kaletik
beheko kalerainok,
ez dago ederragorik
Matxalentxu baino.
Ai Matxalen, Matxalen
ai Matxalen!
Zure bila nenbillen
orain baino lehen.

Matxalen Busturiko
pipa erretzaillia,
pipiak erre dotsa
surraren puntia,

Matxalen Busturiko
astian birritan
Bilbon izaten dala
kolore gorritan.
Ai Matxalen, Matxalen
ai Matxalen!
Zure bila nenbillen
orain baino lehen.



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Iñaki Iturriagoitia (Azoreak)	BOTEPRONTOAN..... 16 Rosa Cacho
ELKARRIZKETA5-7 Roberto Vega eta Andoni Pérez	ESKOLEN TXOKOA 17 Bertso topaketa
KIROLZALE8-9 Ander Garitagoitia eta Julen Olaizola	IRITZIA 18 Egoitzetako (benetako) errealitatea
ERREPORTAJEA 10-12 Urbano Manchobas	ZORION-AGURRAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? 12-13 Maskaradun Dja eta Eneritz Arriaga	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN 14-15 Ermuarrak Tokion	SAREAN GALDEZKA21 Badakizu zergatik dauden igerilekuko langileak greban?
	UZTAILEKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Iñaki Iturriagagoitia

Penintsulatik 2.000 kilometro ingurura daude Azoreak, eta bertan dago Iñaki Iturriagagoitia ermuarra, Sao Miguel irlako Nordeste herrian. Naturarekin kontaktu bizian igarotzen ditu egunak, inguru seguru bezain euritsuan.

- Duela zenbat denbora joan zinen Ermutik?

Bost hilabete igaro dira joan nintzenetik. Global Training bekarekin hona etortzeko aukera zegoela jakin nuen iaz, eta aukera aprobetxatu behar! Batez ere natur kudeaketan lan egiteko aukera paregabea zelako.

- Erabaki erraza izan zen?

Bai, egia esan. Profesionalki aukera ona izateaz gain, horrelako leku baten denboraldi batez bizitzeak beti erakarri izan nau.

- Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Naturalagoa espero nuen flora aldetik, eta hona heltezan mundu osoko landare inbaditzailez josita dagoela ikustean ikaratu egin nintzen. Hala ere irlaren historia ezagutzeko gaur egungo ingurunearen egoera hobeto ulertzeko gai naiz. Ez dut uste aurreiritzirik nuenik, baina harritu egin naute espero ez nituen gauza askok. Adibidez, jendea oso irekia da, eta beti dago laguntze-

ko prest. Gainera, jaietan mundu guztia etxera gonbidatu eta debalde afaltzen emateko prest dago. Nire herrian etxeko giltzak ate kanpoan lagata lo egitea dago. Segurtasun sentazioa dut ia edonon.

- Eguraldiko saioetan askotan aipatzen dira Azoreak. Zer nolako eguraldia egiten du bertan?

Eguraldia izan da atentzioa gehien eman didana. Eurirako prest nentorren, baina ez nuen espero horrenbesterako izatea. Ohikoa da ekaitz gogorrekin argia joan eta lanetik etxera bueltatu beharra, ezin dai-tekeelako ordenagailuekin lan egin. Hala ere badira ere egun eguzkitsuak eta hondartzara joateko aproposak.

- Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan? Ondo moldatzen zara?

Portugesez hitz egiten da, kontinentekoarekin zerikusirik ez duen arren. Frantsesaren eta ingelesaren maila-egu eta ahoskera asko dituzte, eta herri txikietan era



are itxiagoan hitz egiten du-te. Etorri aurretik hitz solteak nekizkien, jende guztiak bezala, baina gaur egun nahiko ondo moldatzen naiz. Dena den, askotan herriko jende nagusiari ulertzea ezinezkoa egiten zait.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Lagunekin poteatzeko aukera, eta baita mendia ere. Hemen ez dago harrizko mendirik eta lanean zuhaitz artean ibiltzen naiz beti, urrutira begiratu ezinik. Eskalatzeko aukera ondo legoke, baina dena den hemengo trekkingak ikaragarriak dira.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

SPEA-n egiten dut lan, hegaztien eta euren habitaten kontserbaziorako GKE batean. Egunaren arabera, proiektuetako ikerketetarako basoetako datuak jaso eta lantzen ditugu. Beste egun batzuetan, penintsula-

ko eta bertako biologoz osaturiko boluntario talde bat kudeatzen dut, hemengo baso endemikoa (*laurissiva*) berreskuratzeko ahalegine-tan. Noizbehinka natur-heziketa eta dibulgazio ekin-tzak ere egiten ditugu.

- Eta aisialdia zertan ematen duzu?

Aisialdian irla ezagutu, *snorkela* egin eta, eguraldiak laguntzen badu, aire zabalean edozein ekintza egiten saiatzen naiz, hemen ezagutu ditudan lagunekin.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Joan nintzenetik ez naiz itzuli. Udan beste irla batzuk ezagutu nahi ditut, eta horren ostean Ermuan izango naiz berriz.

- Gurera bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, hemengo bizimodu lasaia oso gustuko dudan arren, Ermua da nire herria.

Dorleta Vidal

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



Andoni Pérez eta Roberto Vega oso lanpetuta dabilta azkenaldian. Eltze, labana eta errezeta artean igaro dituzte azken asteak, eta lan gogorraren fruituak jaso dituzte batak eta besteak: Pérezek Bizkaiko Pintxo Txapelketa irabazi zuen maiatzean, eta Vegak Ermuko Jardunaldi Gastronómicoetan bi sari jaso ditu, epaimahaiarena eta herritarrena. Taconazo (30 osagaitik gora) eta Bikote (20 osagaitik gora) Jardunaldietako mokadurik arrakastatsuenetarikoa izan dira: 3.500 lagun baino gehiagok dastatu dituzte artelan gastronomiko hauek. Atsedena hartu beharrean, bi ermuarrek proiektuz beteta dituzte euren sukaldeak.

Roberto Vega, sukaldaria:

“Tabernari bakoitzak bere baliabideekin jokatu behar du”

XIX. Jardunaldi Gastronomikoetan taberna berak irabazi ditu lehen aldiz epaimahaiaren eta herritarren saria: Giroak, hain zuzen ere. Hiru urtez jarraian txapeldunorde izan eta gero, saria dastatzeko unea iritsi zaio Roberto Vegari.

- Epaimahaiaren eta publikoaren iritziak bat etorri dira...

Bai, eta asko poztu naute sari biek. Epaimahaiarenak ilusioa egin dit, beste gauza batzuen artean, Bizkaiko Txapeldunari irabazi diodak, kar-kar. Egia da Bizkaiko finalera heldu eta gero, onenen artean egoteko esperantza banuela, baina beti egoten gara sukaldari bertsuak lehian. Eta gainontzekoen artean ere, oso pintxo onak topatu daitezke. Beraz, ezin da jakin.

- Eta publikoaren sariari buruz zer diozu?

Harritu nau. Ez diot inori eskatu nire aldeko botoa ematea, eta ez nuen inondik inora espero. Nabaritzen nuen jende askok hurrengo egunetan errepikatzen zuela, eta ez dit inork esan ez zaiola gustatu.

- Bezeroek egia esaten dute, onerako zein txarrerako?

Bai, zalantza barik. Eta jendeak badaki zer esaten duen, eta zergatik. Gainera, ez daukate ezer galtzeko. Iza-

neska batek pintxo ahotik bota zuen, esaterako, haragi gordina zeramatzalako, eta nazka ematen ziolako.

- Aurtengo pintxoak, Bikotek, zeintzuk osagai ditu?

Osagai nagusia txitxarroa da, baina hogeit hamar inguru daramatza.

- Zaila da berau prestatzea?

Osagaiak prest badaude, 16 pausu eman behar dira. Denbora neurtu nuen eta 30 segundo inguru ematen nuen bakoitza prestatzen. Guztira 1.733 pintxo saldu ditugu, atera kontuak! Gehien saldu nuen egunean, 394 pintxo prestatu nituen. Tabernari bakoitzak jakin behar du zeintzuk baliabide dituen, eta zer egin dezake arratsaldero 300 pintxo inguru arin atera ahal izateko, hori izaten baita batezbesteko pintxo-salmenta. Ezin duzu jendea ordu erdi zain izan.

- Herritarrek ondo erantzuten dute horrelako ekimenetan, beraz...

Bai, zerbait antolatzen denean eta publikitatea egi-



ten denean, ermuarekin erantzuten dute. Bai pintxoekin bai beste edozein egitasmorekin. Baina nik egun arrunt batean, pintxo landuak prestatuko banitu, jendeak ez litzuke erosiko. Hemen ez dago turismorik, eta pintxo bat jatera datorrena sabela bete nahi du.

- Beste tabernarien pintxoak probatzeko aukera izan duzu?

Bai, gure artean trukatu egiten ditugulako. Horien artean Kiskako Taconazo iruditu zait onena. Eta Bizkaiko Txapelketan aurkeztu zenean baina askoz gozoagoa iruditu zait. Uste dut, gainera, txapelketa ezberdinetan parte hartzeak beste perspektiba bat ematen duela, asko ikasten delako. Adibi-

dez, mokaduak txikiak izan behar dira, eta elementu bakar batez osatuta egon. Taberna batzuetan, ezjakintasunagatik, ez dituzte pintxoak asko lantzen. Beste batzuei asko saltzea interesatzen zaie bakarrik... Eta jendeak nabaritzen du zein helburu duen bakoitzak.

- Zeintzuk proiektu dituzu eskuartean?

Ez daukat jatetxea izateko anbizioa, badakidalako zer den, eta gauza askori uko egin beharko nien. Momentu honetan lasai egon nahi dut. Pintxoekin leku ezberdinetan egoteko aukera daukat, eta gozatzen dut: jende eta lan egiteko modu ezberdinak ezagutzen ditut eta oso aberasgarria da.

Dorleta Vidal



**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak

Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Andoni Pérez, sukaldaria:

“Nire pintxoa bilakaera prozesuan dago oraindik ere”

Andoni Pérez sukaldari gazteak datorren urtean ekingo die sukaldaritzako ikasketei. Bere trebetasuna ezin da zalantzan jarri, izan ere 24 urterekin irabazi berri du Bizkaiko Pintxo Txapelketa.

- Duela hilabete Bizkaiko Pintxo lehiaketa irabazi zenuen, Taconazo pintxoarekin. Nola ikusten dituzu gauzak hogeita hamar egun igaro eta gero?

Egia esan asimilatzen ari naiz. Bideoa ikusterakoan urduritu egiten naiz oraindik. Ez genuen irabaztea espero, ez nik, ez Kiskako lagunek ez lehiaketara aurkeztu ziren gainontzekoek ere, nire ustez. Finalean 16 sukaldari aritu ginen, horietatik 4 ermuarrak.

- Zergatik dago herrian hain maila altua?

Sagarrako Jesus eta Sirimiriko Raul ekin zieten herrian txapelketen bideari. Norgehiagoka modukoa sortu zen, eta urtero herriko tabernari berdintsuak aur-

kezten gara Bizkaia eta Euskal Herriko lehiaketetara. Lehiakortasuna badago, baina oso giro ona dugu, eta ondokoaren garaipenek poztu egiten gaituzte.

- Zenbat denbora eman duzu pintxoa diseinatzen?

Madriren egon nintzen, han eta hemen ideiak hartzen, eta gero buelta dezenteman nizkion. Zerbait buruan sartzen bazait... 4 arratsalde jarraian egon naiten probak egiten. Kazolaxoen astean aurkeztu genuen masail-gisatuan oinarritu ginen, baina 30 osagaitik gora gehitu dizkiogu. Oraindik ere bilakaeran dago, eta Ermuko Jardunaldi Gastronomikoetan aurkezteko aldaketa batzuk egin dizkiot.



- Ermuko Jardunaldi Gastronomikoetan irabazteko esperantza zenuen?

Ez, lehiaketa ezberdina delako. Epaimahaia ezberdina da, eta bakoitzak bere gustuak ditu. Euskal Herriko lehiaketan ere parte hartuko dut, ea zer gertatzen den.

- Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gogotsu nago, baina ez dakit zer etorriko zaidan... Jattetxe bat izatea gustatuko litzaidake, edo bazkari eta afariak emateko tokiren bat. Baina horretarako formazioa behar dut lehenik eta behin. Eta nire gurasoei tabernan lagunduko diet ahal dudan gutzia. Gero gerokoak.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

Mendiak batuta, nekean lagun

Ander Garitagoitia mallabitarrak eta Julen Olaizola ermuarrak talde sendoa osatzen dute. Duela 3 bat urte hasi ziren mendi lasterketetan trebatzen, eta egun ia astebururo dabilta mendirik mendi izerdi-patsetan. Esaera zaharrak dioenez gustuko lekuan, aldaparik ez.

Julenek baino urte pare bat lehenago ekin zien Anderrek lasterketei, Frantzia ikasten ari zela, 2013an. Behobia-Donostian hasi zen, baina laster aldatu zen mendi lasterketara. Julen, futbola alde batera utzi, eta mendira igotzen hasi zen bere lehengusua den Mikel Totoriarekin. Duela 3 urte, Ikastolan elkarrekin ibilitako bi lagun hauek mendi lasterketen aldeko apustua egitea erabaki zuten.

Elkarrekin entrenatzen dira, astean 6 egunetan gutxi gorabehera. “Gogor-gogor agian bizpahiru egunetan aritzen gara —diote—. Gai nontzeko egunetan atsedean aktiboa deritzona praktikatzen dugu, muskuluak oxigenatzeko, eta odolaren zirkulazioari laguntzeko. Izan ere, dena eman ahal izateko gorputza deskantsatuta egon behar da”.

Gogor entrenatu nahi dutenean ez dira urrun joan behar, Urko mendi gogorra da-eta. Hala ere, badute euren neurgailu propioa: “La

vuelta de ley” deritzotena. “Urko eta Kalamua aldetik 16 kilometroko buelta da, 1.200m.ko desnibela duena. Horrek erakusten digu nola gauden fisikoki. Urtarrilean eginez gero, adibidez, oso gogorra da”, aitortu dute. Eta mendian korrika egiteaz gain, bizikletarekin ere entrenatzen dute, hankek horrenbeste ez sufritzeko.

Entrenatu, eta ia astebururo lasterketaren batean parte hartzen dute. *Trail* modalitatean ibiltzen dira, hau da, 15 eta 42 km. bitarteko ibilbideak dituzten lasterketetan. Eta ez dira edozer gauzarekin konformetzen. “Gustatzen zaigu lasterketek zailtasunak izatea, erraz-errazak ez izatea. Desnibela eta zati teknikoak atsegin ditugu, non ibiltzen joan behar garen”, dio Julenek. Zati korapilatsu horietan indarra, oreka, erreflexuak eta ausardia izatea ezinbestekotzat jotzen dute. Ausardia, baina neurritz. “Ez da kirol arriskutsua, pentsatzen dena baino gutxiago, eta niri pertsonalki



ez zait gustatzen arriskatzea —dio Anderrek—. Zati teknikoetan onena eman, bai, baina hankak lurrean. Disfrutatzea gustatzen zait, segurtasunez”.

Zegama-Aizkorri

Julenek eta Anderrek bat datoz ia gai guztietan. Adibidez biek aitortzen dute lasterketa baten gogortasuna desnibelak markatzen duela, ez distantziak, eta baita bertako parte-hartzai-leek ere. “Lasterketa batean onenak badaude, *top tena*, beste abiadura batean lehiatzen da, beste abiadura batean irteten da... Maila baxuagoa bada, gu nahiko aurrean egoten gara”, dio Anderrek. Izan ere, ordu t’erdi eta 3 ordu bitarteko saio horietan, “hasi eta bihotza ahoan daukagu”.

Azken urteetan zale asko irabazi ditu kirol honek. Zegama-Aizkorri lasterketari egozten diote Julenek eta Anderrek kirol honen moda, mundu mailan ezaguna baita. “Aurten, esaterako, 10.000 lagunek eman dute zozketarako izena, eta 250 dortsal inguru daude bakarrik. Guri zozketa tokatu zaigu eta Kilometro Bertikalean parte hartu dugu. Oso lasterketa gogorra da, egin dugun konpletoena, baina giro berezia sortzen da, asteburu osoa delako. Ostirailean kilometro bertikala egiten da eta domekan maratonia”. Berdintsu ibili ziren bertan, eta 14 segundoko alde bakarrik egon zen bion artean. Baina ez dezala inork pentsatu batak bestea itxaroten duela, lasterketetan bakoitzak bere lana aha-






SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

lik eta txukunen egiten saiatzen baita. “Nik gutxitan harrrapatzen dut Ander, leher eginda doanean bakarrik”, dio Julenek. Eta Anderrek ahuleziak baditu: Duela bi urte, ez zuen ura eraman Europako Mendietako lasterketa batera, eta gorriak ikusi zituen lasterketa bukatzeko.

Mendiarekin disfrutatuta nahi dute, eta iaz Hiru Handietan

parte hartu zuten arren, euren helburua ez da horrelakotan aritzea. “Lasterketa horietan beste estrategia bat erabili behar duzu, helmugara heltzeko ahalbidetuko dizun erritmoa ipini, janak eta edanak pisu handia dute, aurretik egin duzun deskantsua... Gainera, gauza asko baztertu behar dituzu maila horretako lasterketa bat ondo

prestatzeko. Anderrek onartzen du, gainera, duela 3 urte Goierriko Bi Handiak egin zituela, eta mendiaz nekatu zela: “Disfrutatzen utzi nuen, eta sentsazio hori ez zitzaidan gustatu”.

Badakite zer ez zaien gusatzten, eta badakite zer atsegin duten ere: Zegama-Aizkorri, Oñati, Mendaro, Arrasate, Aloña... 10 laster-

keta inguru egin dituzte aurretan, baina oraindik denboraldia ez da bukatu. Uztailean Lleidako Aigüestorteseko trailean parte hartuko dute biek, eta Anderrek Chamoniexeko lasterketan parte hartzea egokitu zaio, abuztuan. Bertan egongo dira biak, lasterketa bukatu eta entrenatzen jarraitzeko prest.

Dorleta Vidal

Ander Garitagoitia

- Zein da zure estrategia lasterketetan?

Azkar hasten naiz eta gero mantentzen saiatzen naiz.

- Beroa edo hotza nahiago?

Hotza.

- Egin duzun lasterketarik gogorrena?

Asturiaseko Europako Mendietan egin nuen bat, deshidratazioagatik. Bestela, Zegama-Aizkorri edo Hiru Handiak.

- Luzeena?

Hiru Handiak. 14 ordutan bukatu nuen.

- Zein lasterketa duzu egiteko?

Kanarietako Transvolcania, bertan oporretan geratzeko.

- Lortu duzun posturik onena?

Iaz bigarren egin nuen Asturiasen lasterketa batean.

- Lesiorik izan duzu?

Zorionez ez.



Julen Olaizola

- Zein da zure estrategia lasterketetan?

Indarrak gordetzen saiatzen naiz.

- Beroa edo hotza nahiago?

Hotza.

- Egin duzun lasterketarik gogorrena?

Iaz Lleidan egin nuen Aigüestorteseko mendi-maratoia, oso gogorra egin zitzaidan.

- Luzeena?

Hiru Handiak, baina ez nuen bukatu.

- Zein lasterketa duzu egiteko?

Kanarietako egiten den Transvolcania.

- Lortu duzun posturik onena?

Iaz bederatzigarren egin nuen Asturiasen.

- Lesiorik izan duzu?

Duela 6 hilabete hezur-edema egin nuen orkatilan, eta oraindik mina daukat.



Eskuz egindako terapietan adituak

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Gosariak, pintxoak, afariak

Egunero zabalik
8:00etatik aurrera

San Pelaio zeharbidea 4
608 736 900

Quetzal
[arropa, bitxiak, opanak...]

Zubiaturre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Urbano Manchobas, izen handiko arkitektoa (I)

Ermuan sortu, Madrilen ikasi, Eibarren lana, Caracaser a erbesteratu... Zorteko gara, XIX. mendean jaiotako pertsona baten gaineko hainbeste idatzi, berak sinatutako horrenbeste proiektu eta tente irauten duten hain eraikin eder eta sendo izateagatik. Bidaiatu dezagun bere ibilbide prestigiotsuan zehar!

1 886ko abenduaren 7ko goizaldean Ermuko Artekaleko Pedromarianeko etxean jaiotako hari umetxoari, santoralaren agindu hutsez, Urbano izena jarri zioten. Lorenzo Manchobas Ormaechea eta Salomé Careaga Ortuzar ermuarrek izandako 6 seme-alabetatik 2. izango zen. Aitaren lana Madrilen zegoenez, familiak sarri-sarri joan eta etorri egiten zuten. Urbanok 1903an, 16 urteko mutikoa zela, Madrilen Arkitektura ikasteari ekingo zion; urtero hiruzpatalu irakasgaitan matrikulatuz, 1911an amaitu zuen. Bere formazioaren lagungarri, Udal Suhiltzaileen taldean aritu zen boluntario gisa.

1913. Madrileko España Plazan estudio tekniko bat partekatzen du Miguel García-Lomasekin, elkarrekin lan ugari eta esanguratsuak sinatuz gerora.

1915. Ribadesellako La Casina, indiano estiloko etxe ederraren proiektua burutzen dute sozio biak. Madrilen Ogasun Publikoko arkitekto ofizial izendatu ostean, 1918an Valladolideko Katastrora destinatzen dute, urtea amaitu orduko eszedentzia eskatuz. Bere lorratzak berriro Ribadesellara daramakigu, 1917tik 1924ra indianoen etxe ikusgarrienetako batzuk proiektatuz García-Lomasekin batera: Villa S. Pedro deituriko



koa eta Miguel Llano, Calleja Doktorea, Alekoko markesa eta Antero Prietoren etxeak. Bertako Sta. Magdalena eliza ere bion planoetan oinarritzen da. Tartean, 1919an, Madrilen Gran Via 22 bis, 5 soilairuko etxea diseinatzen dute eta 1920an proiektu erraldoi bati oratzen diote bi arkitektook: Covadongako Favila Hostala, ostatu emateko baino seminario legez erabiliko zena.

Etxera begira

Baina berak gure parajeok maite zituen. Peru Alava lobaaren esanetan “Ermura zetorreanean Urkora igotea gustatzen zitzaion, perretxikoak batzea, ibiltzea...”. Lagu-

nekin elkartu eta Matxin-Txikinean kartetan ekitea gustuko plana zen beti, bide batez herriko gauzen berri eduki, bere ikuspuntu nazionalista eskaini politikaz eta hobetu beharreko gauzetaz berba egitean... Berataz galdetuta, batek “Ermuzalia zonan!” esango zigun, beste batek “Gizon onan famia ekan” eta “Arkitektoik ooooneitakua zan!”... Berton ezagutu zuen bere emaztea izango zena ere: Manolita Egaña, Eitzako auzo-eskolan maistra eta Ermuan ostatu hartuta zegoen donostiarra. Bien euskararen soinu desberdintasuna zela, Manolitarren erremangoa eta izaera bizia zela, Urbán gurearen tenplanta eta mundulogia

“Ermura zetorreanean Urkora igotea gustatzen zitzaion, perretxikoak batzea, ibiltzea...”



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Drogeteniturrri, 279 zk.

mari
asun

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

zela... ez jakin zer maite-mindu zituen! Arantzazun ezkondu ziren, 1925ko ekainaren 13an. Gerora hiru seme-alaba etorriko ziren: Andoni, Imanol eta Arantza, Villabonan, Manolitaren senideen arrimura jaiotakoak hirurak.

Ermuan, Irulitxan, Iturri-ganeko etxean biziko ziren. Manolitari ere karta-jokoa gustatzen zitzaion eta Erromadetako Bernardanean bazten zen lagunekin. Etxera bidean, Matxin-Txikineko atea zabaldu eta "Urbán, etxera!" esanez, erretiratzeko ordua ailegatu zela ekartzen zion akordura.

Ordukoak dira Ermuko geltoki ondoko bere osaba Nicolas Careagan txaleta (1925) eta Drogeten Rantxoia (1923), gaurko VI. Mendu-rena kalean. Bereak dira ere Ermuko Batzokiak (1935) eta Elantxobekoak.

Eibarren plazadun

1927ko abuztua. Eibarko udalbatzak udal arkitekto plaza eskaintzen du; aurkeztu eta bera da aukeratu. Bertan lanean emango dituen 9 urtetan Eibarko hirigintza eta industriagintza-ren hazkundearen protagonistetako bat da, bereak izanik eraikin eta tailer enblematikoenen proiektu eta planoak. Hango Udal Artxi-boan gordeta daude laurogeitik gorako lan-espeditente eta Urbanok sinatutako dozenaka plano, zehaztasun harrigarriekin eginkoak papel entzeratuan eta kopia-pa-per urdinean. Beraien artean denetik topatu dezakegu: 12 tailerren eraikuntza, tartean ABC, Aurrerá, BH, Solac, Crucelegi, Gabilondo, Larreategi, Ormaetxea, Arrizabalaga, Cruceta edo Margola tindategia; beste horrenbesteren berriztapen eta handitze lanak; 17 etxe eta txaleten eraikuntza,

"Heriotza zigorra ezarri zioten, baina alde egitea lortu zuen"

"nevasco" estilokoak asko; 20 etxeren berriztapena; panteoiak, garajeak, oilotokiak...

Baina partikularitasunetik haratago eta beti ere arkitekturak duen funtzio sozialari men eginez, herritarren onurarako diseinatutako hainbat proiekturen aita izango da: labaderoak O'Donnell eta Txontan, Alhondiga berria Pagein, La Salle Isasiko ikastetxea, Agina, Mendiola-balle eta Maltzako auzo-eskolak, Untzagako musika kioskoa eta lurrazpiko komunak, Arrillagaren klinika Urkusuan, Trinkete frontoia Txontan, Rialto antzoki-zinema, Txaltxazelaiko eta Eskola Armeriako frontoiak, Tuberkulosoaren Legarreko pabellioia, Hospitaleko kapilla, trenbide gaineko pasarela Ardantzán, Ibarburutzeko iturria... guztiak zoragarriak eta aurrerakoiak, eurretako asko gerran edo hirigintza hazkundearen gorabeheren ondorioz suntsituak.

Yolanda Ruizek, Eibarko Udal Artxiboko arduradunak ondo ezagutzen ditu Urbanon lanak. "Lehen arkitekto plazaduna izan zen. Emozionatu egiten naute bere marrazkiek eta bere planteamenduak egiteko orduan



duen zehaztasunak, eta miresten dut bere proposamenen izaera soziala".

Bere lanpostuak erbestea suposatu zion baina. Ana Isabel Recaldek, *Identidad e integración. Voces del exilio vasco* lanerako, Arantza alabari eginiko elkarrizketan jasotzen duenez "Eibarko Udal arkitekto bezala, Manchobasek erantzukizun desberdinak zituen Gerrate Zibilean, tartean bonbardaketek euskal eraikin publikoetan eragindako kalteak gainbegiratzeari. Ormaiztegiko biaduktuaren desmuntaiaren hartu zuen parte, tropa frankistek pasoa galarazi eta bere suntsiketa saiheste asmoz. Bi injenierurekin burutu zuen". Andoni Manchobas lobak argitu digunez "Berak esan zuen nondik moztu. Argazki batzuegatik errekonozitu eta heriotza zigorra jarri zioten". Alde egitea lortu zuen: Frantziatik Belgikara eta azkenean itsasontziz Venezuelara. Baina hurrengo alerako lagako ditugu itsasoaren beste alde horretako bizipen eta gorabeherak.

Estibalitz González



Ribadesellako Villa S. Pedro, Urbanoren planoetan oinarritutako indiano etxea, jatorrizko tenis-pista ere mantentzen duena.

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60

E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

Jon Saéz, Maskaradun DJa:

“Nire asmoa da eraso sexistarik gabeko musika jartzea”

Duela urtebete sortu zuen Maskaradun DJa, baina emanaldi guztietan maskara baten atzean izkutatzen den animatzailea Jon Saéz ermuarra da. Hamaika musika tresna jotzen ditu, hainbat elkarte eta taldeetako kidea da, eta haur eta gazteentzako disko festak girotzen ditu.

- **Nola sortu zen Maskaradun DJa?**

Egia esanda ez dakit. Txindurriko entsegu baten Ermuan Bagaraneko prestaketa zirela medio, nik DJ lanak egingo nituela komentatu nuen, egun horretarako bereziki. Handik egun batzuetara beste herri batetik deitu zidaten, Otxandiotik, bertan jotzeko proposamenarekin. Orduan erabaki nuen DJa izatea.

- **Zergatik aukeratu zenuen Maskaradun DJa izena?**

Argi dago: ikuskizunetan maskara daramadalako soinean. Duela urte eta piku maskarak egiten ikasteko tailerra egin nuen. Bertan egindako maskara hori aprobetxatuz sortu zen gaur egun ezagutzen duzun Maskaradun DJa!

- **Zure emanaldiak gazteei bakarrik zuzenduta daude?**

Ez, 2019an umeentzako ere disko festak egiten hasi naiz. Beraz, bi formatu desberdin eskaintzen ditut: alde batetik, gazte nahiz nagusientzako disko festak;

bestetik, haurrentzako disko festa, non hainbat dantza, jolas, eta koreografia egiten ditudan umeekin batera.

- **Zenbat herritan jo duzu hasi zinenetik?**

Kontutan izanda urtebete daramadala honetan eta gogo askorik ez dudala jarri honen zabalkundean edo hedabidean, espero nuena baino herri gehiagotan egon naiz! Aretxabaleta, Otxandio, Aramaio, lurreta, Durango, Gorkiz...

- **Urtean izan duzun momenturik politena?**

Ba agian Ermuko Sagardo Egunean bildu zen jendetza, baina badira beste hainbat momentu, Aretxabaletan adibidez, 14 pertsona eszenatoki azpian, euripean, baina bertan izan ziren, dantzan eta ondo pasatzen!

- **Zein da zure helburua honekin?**

Ondo pasatzea eta giro polita sortzea. Nire asmoa da eraso sexistarik gabeko musika jartzea, eta jendeak ondo pasatzea, noski!



- **Zer egiten duzu maskara kentzen duzunean?**

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa ikasi nuen, eta horrez gain begirale titulua dut. Etorkizuna nire beste zulo beltz bat da. Ez dakit ikasten jarraituko dudan, edo lan egin nahi dudan, hezkuntza mundutik jarraituko dudan... Ermuko Antxitxiketaren aisialdi taldeko begiralea naiz eta beste erakunde batekin haurrentzako tailerrak ematen ditut, eta noski, musikaria naiz.

- **Betidanik izan duzu musikarekin lotura?**

Betidanik gustatu izan zait, baina lotura zuzena duela 6 urte egin nuen, Txindurriko txistua jotzen hasi nintzenean.

- **Zenbat instrumentu jotzen dituzu?**

Gaur egun, txistua, kaxoia, gitarra, trikitixa, perkusiozko hainbat musika-tresna eta melodika. Momentuz honekin nahikoa dut! Kar, kar!

Armaia Arginzoniz

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

esanline

+ @ + +

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esanline.es

Bitsi-denda Tailor peopioa Erlojurdenda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Eneritz Arriaga, C1 mailako aztertzailea:

“C1 azterketak EGAREN maila berbera egiaztatuko du”

Maiatzean egin zen EGAKo azken azterketa. 1982an Eusko Jaurlaritzak sortutako Euskararen Gaitasun Agiria desagertu da betiko, eta bere ordez HABEko C1 azterketa egin beharko dute euren euskara maila egiaztatu nahi dutenek. C1eko aztertzailea den Eneritz Arriagak azaldu dizkigu aldaketa horren zehaztasunak.

- **Zer gertatu da EGAREkin?**

Orain arte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kudeatu izan du EGA; C1 azterketa, berriz, HABEren mendean egon da, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen mendean, alegia. Horiez gain, maila bera frogatzen duten beste azterketa batzuk ere badaude: IVAPEkoa, Hizkuntza Eskolako... Azterketa larregi dago, eta batzuk bateratu nahi izan dira. Kasu honetan Eusko Jaurlaritzaren alor ezberdinek kudeatzen zituzten bi azterketa bateratu dira: EGA eta C1. Urteak zeramatzaten hori egin nahian, eta ez da lan erraza izan.

- **Eta bateratze horren ondorioz, EGA desagertu da?**

Bai, hemendik aurrera C1eko azterketa bakarrik egingo da, eta HABEK kudeatuko du.

- **EGA desagertzeak eztabaida sortu du kalean...**

Bai. EGAK prestigio handia izan du, ez bakarrik EAEn,

baita nazioartean eta Europako Hizkuntzen markoan ere. Funtzionatu duen eta errekonozimendua izan duen azterketa bat desagerraraztea ondo ikusi ez duen jendea bada, arlo askotako jendea gainera. Europako Markoak arautzen duen C1 mailara ondo egokitzen zen, ondo kudeatuta zegoen eta jendartean ezaguna zen. Izan ere, gaur egun euskaldun guztiok dakigu zer den EGA.

- **Zeintzuk dira bateratze horrek ekarriko dituen onurak?**

Azterketen kontua argiago izango dela, eta eredu bakarra egongo dela. Lehen azterketa gehiago zegoen eta zoramena zen. Aurretzean ez dakit beste azterketa batzuk ere C1ekin batuko diren.

- **Proba bera aldatuko da? Hau da, azterketa-ereduan aldaketak egingo dira?**

Bai, hemendik aurrera C1 azterketa egin beharko dute ikasleek, eta C1 azterketa ezberdina da. Ez dago atariko probarik, esaterako, eta ata-



rikoan galbahea egiten zen. Galbahe hori oso eraginkorra zen, eta egiaztatuta dago berri gaitzen zuten %70k EGA azterketa gaitzen zuela. Atarikoan justutxo zebiltzaten artean, aldiz, %10ak bakarrik lortzen zuten EGA titulua. Atariko proba ez denez egongo, C1eko gaitze-tasa nahiko baxua izango da, edozein aurkeztu ahal izango delako azterketara, bere maila aurretik neurtu barik. Eta gaitze-tasa baxua izateak azterketaren maila jaitea ekar lezake.

- **Aztertzaileei dagokienez, zertan aldatuko da zuen lana atarikoaren desagertzearekin?**

Atarikoak jomugan egon da askotan, baina berri man-

tentzeko arrazoiak bat zen ez dagoela baliabide ekonomiko nahikorik aurkezten diren guztiei azterketa zuzentzeko. Dirutza da. Bi aztertzaile eta tutore bat behar da gutxienez azterketa bat ebaluatzeko. Irailean izango da C1eko lehen azterketa EGA desagertu eta gero, eta azterketari pilo bat espero dira, atarikorik ez dagoelako. Aztertzaile mordo gaude deituta, baina egin beharreko lana berdina izango da.

- **Aurretik EGA duenari eragingo dio aldaketa honek?**

EGAdunek EGA dute, eta C1 dutenek C1 dute. Titulu baliokideak dira, maila berbera egiaztatzen dutenak.

Dorleta Vidal

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA


Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa

Hitzorduak: 688 85 18 95

ERMUKO 11 LAGUNEK BIDAIA EGIN DUTE TOKIORA



Ekainaren 13tik 20ra bitartean Japonian izan da ermuar talde bat, tartean San Francison bizi diren bi ermuar ere. Tokioko lagunei bisita egin eta euren kultura ezagutzeko asmoarekin joan dira bertara, izan ere hangoek ere urtean birritan etorzen dira Euskal Herrira. Bidaia honetan parte hartu duen Alex Alvarezen esanetan, Tokioko Euskal Etxean Athleticzale taldea dago, eta Athleticaren bitartez ezagutu ziren. "Tokio ez da taldean bisitatzeko lekua, baina oso ondo pasatu dugu. Tenplu pilo bat ikusi ditugu, taberna gehiago, eta agian deigarriena tokiotarren bizimodua izan da", dio Alexek.



Disko festa eta bakarrizketa antolatuko ditu Euskal Birusak Santixau jaiak baino lehen

Santixau jaiari usaina hartzen joateko, bi ekitaldi antolatu ditu Euskal Birusa Elkarteak datozen asteetarako. Hiru eta 14 urte bitarteko ume eta gazteek ondo pasatzeko aukera izango dute uztailearen 16an. Izan ere, "Mugi Zaitzez!" disko festa egingo da Martxoaren 8a plazan, 17:30ean. Ordubeteko saioa izango da gutxi gorabehera, eta pil-pilean dauden abestiak entzungo dituzte bertaraten direnek. Gainera bi dantzarik koreografia errazak egingo dituzte, ikusleek dantzatzeko. Uztailearen 18an, osteguna, helduen txanda izango da. 22:30ean Oihan Vegak eskainiko du umorezko bakarrizketa elizako arkupeetan: "Euskañolitis. Zergatik praktikatzen dugu sexua gazteleraz?". Euskararen hausnarketa ironiko eta sarkastiko honetan zenbait esketx ikusteko aukera egongo da, eta Oihanek, gitarra hartuta, musika eta kantuen bidez ere, euskarari buruzko bakarrizketa honetan publikoaren etengabeko parte-hartzea bultzatuko du.



Festan Blai ekimenaz gozatzeko aukera izango dute gazteek uztailearen 23an

Jaiari merezitako hasiera emateko, urteroko zita izango dute gazteek Martxoaren 8a plazan. Uztailearen 23an, 22:00etatik 01:00etara, "Festan Blai" ekimena izango da berriz ere. Musika, dantza, jolasak, opariak... Festaz gozatzeko behar den guztia izango da bertan, Ermuko Udalak antolatuta. Egoitz Txurruka "Txurru" Gaztea irratiko esatari ezagunak girotuko du gaua. Berak jarritako musika dantzatu bitartean, hainbat jolas eta erronketan parte hartzeko aukera izango dute gazteek. Trukean, festaz gozatzen jarraitzeko opariak eskuratu ahal izango dituzte. Jaietan gazteentzako gune propioa eskaini, elkarren arteko harremanak sortu eta ondo pasatzeko aukera eskaintzen du "Festan Blai!" ekimenak, euskaraz eta festa giroan.




Gorabidek 50 plaza eskainiko ditu adimen desgaitasuna dutenei laguntzeko

Prestakuntza labur bat egin ondoren, hautatutako boluntarioek bi asteko bidaia egingo dute abuztuan Gorabideko kideekin: Galizia, Asturias, Kantabria, Gipuzkoa, Nafarroa edo Errioxara. Interesa dutenek 94 443 12 10 telefonora deitu edo tiempolibre@gorabide.com helbidera idatzi dezakete.



Drogeteniturrri, 279 zk.

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia



350 jokalarik parte hartu dute Mallabiko eskolarteko areto-futbol txapelketan



Mallabia FTK hainbat txapelketa antolatu ditu denboraldiari amaiera emateko. Maiatzaren 25 eta 26an Mallabia Cup txapelketa burutu zen, eta bertan Bizkaiko eskoletako 34 taldek parte hartu zuten, 350 neska eta mutiko guztira. Benjaminetan Ermuko Eskolabarrik lortu zuen txapela, finalean Etxebarriko Kukullagari 2-0 irabazi eta gero. Alevinetan, Zalduak irabazi zion finalean Sestao FSri, 4-2.

Aurrebenjaminetan, azkenik, umek modu ez lehiakorrean jokatu zuten. Bestalde, Ermuko Bolaños taldeak irabazi zuen "Euskararen aldeko maratona", maiatzaren 31 eta ekainaren 2a bitartean gauzatu zena. Deportivo Nerik lortu zuen bigarren postua.

Daniel Txopitea artista ermuarraren dokumentala eskainiko da Lobianon

Orain 20 urte baino gehiago zendu bazen ere, bere obra plastikoak modernotasuna gordezen jarraitzen du. Margolaria, poeta, arte kritikaria, artikulista, nobelagilea... polifazetikoa eta aitzindaria izan zen Txopitea. Bere alaba Ainizeren eskutik, hitzaldi eta dokumental baten harira, Kaltxangon jaiotako autodidakta honen figura eta lana ezagutzeko aukera izango da ekainaren 27an, osteguna, 19:00etan Lobianon. Durangon bere 40 arte-lan ikusgai daude uztailearen 7ra arte, Arte eta Historia Museon.

Errebelde 50 aldiz liburuan Luz Zalduegi

Andrea Perales, María Orcasitas eta Ángela García idazle eta ilustratzaileek argitaratu duten *Errebelde 50 aldiz* izenburupeko liburuan 50 emakume esanguratsuren historia batzen zaigu. Guztiak dira beraien familia eta komunitatearen alde zintzo eta tinko lan egindako emakumeak, historia aldatu dutenak euren asmakizun edo pentsatze zein egiteko modu iraultzaileagatik. Emakume aitzindariak, ausartak, langileak... Tartean, Luz Zalduegi mallabitarra, Aitxu baserrian jaiotakoa eta Euskal Herriko lehen emakume albatari tituluduna eta Estatu mailako hirugarrena izango zena.

Gure Balioak Sariaren X. edizioa abian da

2019ko Gure Balioak Sariako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du berri du Debegeak. Sariketa honen helburua da Debabarreneko eskualdean giza balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo entitateen jarduna publikoki aitortzea. Ermuar eta mallabitar guztiak egin ditzakete proposamenak, beti ere baldintza hauek kontutan hartuta: hautagaiak Debabarrenean jaiotak izan behar dira (edo bere ibilbidea eskualdean garatu behar izan dute); eskualdearekin lotura izan behar dute; eta balioetan oinarritutako ibilbidea edo jarduera erakutsi beharko dute. Lehen fase hau uztailearen 14an bukatuko da. Sariaren gaineko informazio gehiago jasotzeko: 943 82 01 10 edo komunikazioa@debegea.eus.

AIMAR GALDOS ETA IZARO OLIVEIRA DEITU DITUZTE ESPAINIAKO TXIRRINDULARI TXAPELKETAN PARTE HARTZEKO

Ermuko bi txirrindulari gazteak Valentziako Ricardo Tormo zirkuituan lehiatuko dira (Chesten), uztailearen 5etik 7ra bitartean. Euskal Selekzioko kide bezala arituko dira, Aimar Galdos kadete mailan eta Izaro Oliveira infantiletan, eta hainbat proba burutuko dituzte.



IÑAKI ARREGI BEKA SORTU DU UEMAK

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, Iñaki Arregi ermuarraren ome-nezko beka sortu du. 2010ean zendu zen Iñaki, *Drogeteniturri* eta Euskal Birusa Elkarteko sortzailea eta bultzatzaile nekazina. Ermuko Udaltzako zinegotzi izan zen eta El Correo egunkariko korrespondentsala, besteak beste, eta UEMAKo koordinatzaile Mankomunitate honen sorreratik, 1992tik, ekainaren 8ra arte, betiko agur esan zuenera arte. Udalerrri euskaldunen garapena aztertzeke, ikerketa sustatzeko eta euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko ikerketa beka izango da. Eusko Jaurlaritzak babestuko du, eta bi lan sarituko ditu lehen deialdi honetan, bakoitza 5.000 eurorekin.

T

XALAPARTA
ABERNA

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

Silvia

peluquería

688819336

R O S A C A C H O

- **Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**

Nire amamaren irudia datorkit burura. Bere etxeko patioan egoten nintzen sarritan, eta bordatzen zuen bitartean istorio pilo bat kontatzen zizkidan. Kafea egitera joaten zenean, kafe-errotaren zarata, eltzeko kafearen usaina...

- **Eta gaztaroa?**

Nire gurasoek barnetegi batera bidali ninduten 10 urterekin, Karmelitetara. Ikastetxe zorrotza zen, baina oroitzapen onak ditut, batez ere ikaskideena. Ondoren institutura joan nintzen Almendralejon, eta Unibertsitatera Caceresen.

- **Oso gaztetik ohitu zara etxetik kanpo bizitzen...**

Bai, horri esker asko ikasi dut, baina gauza pilo bat galdu ere. Nire neba gazteena jaio zenean, esaterako, ez nintzen jada etxean bizitzen. Nik ez dut nahi nire seme-alabek ezer galtzea, agian horregatik nago eurekin etxean.

- **Zer dela-eta heldu zinen Ermura?**

2000. urtean Ermura etorri nintzen oportetan, nire izeko bisitatzera. Santi-xauak baino aurreko asteburuan, parrandan irten eta nire senarra ezagutu nuen, Lolo. Patxi tabernan ezagutu ginen, eta Keler batera gonbidatu ninduen.

- **Ordutik aurrera banaezinak egin zineten?**

Ez, nire herrira bueltatu nintzen, oso gaztea nintzelako. Baina harremana sendo-



Badajozen jaio zen duela 40 urte. Bi neba ditu, bera baino gazteagoak. Arte eta Historiako irakaslea da. 2010ean utzi zuen bere herria, Entrín Bajo, ermuar batez maitemindu eta gero. Bi seme-alaba ditu: Irati eta Martin. Euskaltegian eta Berbalagunen urte batzuk eman eta gero, ederto hitz egiten du euskaraz.

tzen joan zen, eta gero eta sarriago elkar ikusten genuen. Karrera bukatu, lanean hasi, eta oposaketak gaingitu nituenean zirt edo zarteko erabakia hartu behar nuen. Eta maleta egin nuen.

- **Erabaki erraza izan zen?**

Pentsatzen dut zoriontsu izateko jaio garela. Askokostatu zitzaidan gurasoei esatea banihoala, eta oso gogorra egin zitzaien: urrun nentorrela, hemen ezingo nuela lanik egin...

- **Eta lan egiteko aukera izan duzu?**

Eibarren egon nintzen lanean denda batean, Irati jaio arte. Inoiz ez dut pentsatu etxean egongo nintzela, baina nire erabakia izan da, eta oso pozik nago.

- **Zer egiten duzu aisialdian?**

Irakurri, antzerkera joan eta musika zuzenean entzun. - **Zein izan da irakurri duzun azken liburua?**

Dolores Redondoren *Todo esto te daré*. Eta Amaren Eguenean Lolok oparitu zidan *Educar sin perder los nervios*.

- **Kirola egiten duzu?**

Ez, ez zait gustatzen.

- **Biziorik?**

Jatea.

- **Zein da zure platerik gogokoena?**

Gazpatxo fresko bat udako sargorian.

- **Bidaiatzea gustatzen zaizu?**

Bai, pilo bat. Gaztetan atzerrira joaten ginen, eta Irati jaio zenetik Espainian zehar ibili gara. Argentina dugu bisitatzeko.

- **Zure eguneko momentua?**

Denak ohera joaten direnean egongelan egoten naiz, telebista itzalita, isiltasunean. Irakurri, pentsatu edota infinitura begiratzen dut. Goizeko lagunekin hartzen dudana kafean ere asko gozatzen dut.

- **Bertuterik?**

Nire lagunena laguna naiz. Askok baloratzen dut adiskidetasuna.

- **Eta akatsik?**

Askok Nabarmenena bat-batean haserretzen naizela.

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Puntualtasun ezak.

- **Zerk eragiten dizu barrera?**

Nire seme-alabek. Eta AEKko nire ikaskidea zen Juanma Rodríguezek.

- **Zer nolako garrantzia dauka zuretzat euskarak?**

Izugarrria! Sei urtez joan naiz euskaltegira, eta duela bi urte B1 atera nuen. Berbalagun eta Gurasolagunen ere parte hartu izan dut, baina Sallabentean oso euskarak gutxi entzuten da.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Kulturarteko jaia ospatu genuen Ongarai Eskolan

Ermuan Kulturarteko Astea burutu zela aprobetxatuz, ekainaren 7an, ostirala, Ongarai Eskolako II. Kulturarteko jaia ospatu genuen. Hainbat ekintza burutu genituen, gure eskolan dauden jatorri ezberdineko familien esku-hartzea eta bizikidetzatza gauzatzeko helburuarekin. Alde batetik, ikasleek eskolako herrialde ezberdinen mapa osatu zuten, bertan adierazten zutelarik nondik etorriak ziren. Bestetik, tailer ezberdinak antolatu ziren gurasoen parte-hartzea baliatuz. Idazketa tailerrean, guraso batzuk arabez edo zirilikoz idatzi ziguten eskatutakoa. Argazki eta jantzien erakusketan, herrialde ezberdinetako irudi eta jantzi bitxiak ikusi ahal izan genituen. Eta azkenik, Janariaren Tailerrean, herrialde ezberdinetako berezko janariak ikusteaz gain, ikasleek dastatu ere egin ahal izan zituzten. Benetan ekintza aberasgarria!! Mila esker festa antolatzen lagundu duzuenoi eta zorionak!



“Mundu bat bertso” bertso topaketak 169 ikasle bildu zituen Ermua Antzokian

Ekainaren 6an burutu zen “Mundu bat bertso” bertso topaketaren bigarren edizioa, eta honek amaiera eman zion ikasturte osoan zehar eskoletan landutako “Mundu bat bertso” proiektuari. Ermuko ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu zuten jaialdian: Ongarai Eskola, Eskolabarri, San Lorenzo eta San Pelayo ikastetxeetako 6. mailako ikasleek, eta Anaitasuna Ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek. Guztira 169 gaztetxo bildu ziren ikasturtean zehar bertsoen alorrean ikasitakoa herrian zabaltzeko.

“Ordu t’erdi inguruko saio honetan eskola bakoitzak bere bertso-sortak aurkeztu zituen”, azaldu digu proiektuaren



arduraduna den Arantza Plazak. Kopla horiek kantatzeko, umeez janzkera berezia eraman zuten. “Herri kirolarekin zerikusia zuten bertsoak aurkezteko esaterako: Harri-jasotzaileen inguruko bertsoetan, harri-jasotzaileez jantzita irreteten ziren umeak; sokatiraren inguruko bertsoak kantatu zituztenek sokatira egin zuten... Sarta bakoitza antzezpen txiki batekin edo dantza batekin lagunduta joan zen”, dio Arantzak.

Horrez gain, bi bertsolarik parte hartu zuten emanaldi honetan: Onintza Enbeita eta Eneko Arrate, eta jaialdiko bi momentu ezberdinetan euren saioak eskaini zituzten. Aipatzekoa da ere, ikasturtean zehar eskoletan kantaldi bat egiten dela. Musikari bat joaten da eskoletara, umeei kantu-liburu batzuk banatzen zaizkie eta gehien gustatzen zaizkien abestiekin kantaldia egiten da. Bertso Topaketan ere musikari bat egon zen, Mikel Inunziaga, eta bere gitarrarekin umeei lagundu zien abesten, eta gelan ikasi eta landutako bertso-sortak aurkezten. “Guraso asko egon zen, familia pilo bat eta umeen lagunak ere bertan izan ziren —dio Plazak—. Antzokia bete-berik egon zen, eta giro ederra sortu genuen”.

Jaialdiaren bukaeran oroigarri bat eman zitzaizen eskola guztiei eta Ermuko Udalari. Bizkaiko Bertsolari Elkarteke lehendakaria den Asier Ibaibarriaga ermuarra arduratu zen oroigarri hauek banatzeaz.

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Egoitzetako (benetako) errealitatea

Onartu behar dut gutxi gustatzen zaidala telebista, baina saiatzen naiz 'Salaketa' edo 'Ikerketa-ko' saioak ikusten. Azkenaldian behin eta berriro helarazten dizkigute nagusien egoitzetako langileek egiten duten lanari buruzko albisteak. Zenbait telebista saioek bultzatutako ikerketa lan hauen helburua ez da egoitza ia gehienetan zaintzaileek egiten duten lanaren garrantzia nabarmentzea, ez. Horien helburua da zabaltzea —ezkutuko grabazioen bitartez— tratu txarrekin zerikusia duten kasu bakanak.

Laguntza-zentro mota ezberdinek ezagutzen dugunoi, eta horietan egiten den lana gero eta hobe izaten bultzatzen dugunoi,

heldu zaigu azalpenak emateko ordua. Argitu behar dugu zaintzaile eta tekniko bikainak daudela, eta nahiz eta kasu batzuetan oso baldintza ezegonkorrak izan, arreta egokia emateko ahalegin guztiak egiten dituzte.

Dena hobetu daiteke, jakina, eta gaur egun, lan merkatuaren egoera zailaren eraginez, langile batzuk iragaitzak dira eta pasio eta bokaziorik gabe dihardute zeregin hauetan. Baina bakar batzuk dira.

Hori dela-eta, besteak zaintzen benetan gozatzen duten pertsonak kontratatzearen aldeko apustua egin behar da jarraitu behar dute zentroe



Juan Carlos Martín

bide pertsonal eta ekonomiko nahikoak eskaintzen. Hauei esker lortuko dira nagusien, desgaitasun eta osasun mentaleko elkar-teak, benetan arduratuko direnak zaintzen dituzten pertsonen beharrez.

Gainera, senideak zentroen kudeaketaren partaide bihurtu behar dituzte. Parte-hartze prozeduren bitartez senideen pertzepzioa jaso daitekeelako, zainduta-ko pertsonak jasotzen duten zerbitzua balioztatuz.

Horrela, konfiantza eta gardentasun giroa sortuko da, dependentzia duten pertsonen zainketa dedikatzen diren zentro hauekiko zalantzak uxatuz.

“ Besteak zaintzen benetan gozatzen duten pertsonak kontratatzearen aldeko apustua egin behar da ”

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatuta bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toloarekin. Prezio negoziagarria. ☎ 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

LAN BILA

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarako orduka. ☎ 662 012 834.

Nagusiak zaintzen (gauez) eta garbiketarako orduka. Jaurlaritzako titulua eta eskarmen-tua. ☎ 603 514 085.

ALOKAIRUA

Abuztuaren 18tik irailaren 15ra. Donostian, Antiguu auzoan. Hondartzatik 5 minutu-ra. 55metro karratu, berriztatuta, igogailuarekin. 2 logela, komuna, egongela, jangela, sukaldea eta Wifi. Hamabostaldia : 1600€ Angel ☎ 699 027 734.

LAN ESKAINTZA

Laguntzailea behar da Elgoibarko ile-apaindegi batean. Berehala lanean hasteko. Jardun erdia. Nerea ☎ 943 24 62 25.



Ekainaren 15ean
Zorionak Aiiala!
Musu handi bat familia guztiaren partez.



Ekainaren 16an
Zorionak Ane!
3 urte!! Musu handi bat familia guztiaren partez.



Ekainaren 19an
Zorionak Vega zure 2. urtebetetzean!!! Bizitzan gertatu zaigun gauzarik onena eta politena zara. Muxu handi bat amatxo, aitatxo eta familia guztiaren partez. Oso ondo pasa printzesa!!!



Ekainaren 9an
Zorionak Oihane!
Oso ondo pasatu zure 2. urtebetetzean. Muxu asko Ander, aita eta amaren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Uztailaren 10a.**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Menduarena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Kopi-Fax

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MALLABIA
1959**

Argazki hau duela 60 urte inguru aterata dago, Elgetako Panaderokua tabernan. Bertan agertzen den kuadrilla Ricardo Madariagaren despedida ospatzen ageri da. Julian Zelaietak ba omen zeukan soinu berri bat, baina horrelako ospakizunetan zaharra eramaten omen zuen, kontatu du Josek.

Bertan agertzen dira: Juan Gallastegi, Mertxe (Elgetako Mendikute baserrikoa), Juan Urkidi, Antonio Mugarza, Jose Astarloa, Jose Mari Gisasola, Julian Zelaieta eta Eugenio Gandiaga.

**ERMUA
1979**

Institutuko BUPEko 1. mailan ermuarrak eta eibartarrak nahaste. Atzeko ilaratik aurrekora eta ezkerretik eskumara: Esther Agirregomezkorta, Lorena Ibeas, Iñaki Mugika irakaslea, Patxi Magunazelaia, Amaia Sesma, Begoña Gómez, Arrate Gómez, Elena Conde, Raquel García, Idoia Diez, Carmen Etxeberria, Irene Barrena, Susana Uzkudun, Mari González, Nerea Albizu, Begoña Alzerreka, Ana Garro, Aitor Blanco eta Pedro Domínguez.



Drogeteniturrri, 279 zk.

Publizitatea:

DROGETEN ITTURRI
Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria


943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com



Maiatzaren 22an itxi ziren Ermuko Kiroldegiko igerilekuak, bertako begirale eta sorosle-en mugagabeko grebak eraginda. Hilabete igaro da ordutik, eta igerilekuetako erabiltzai-leek udal instalazio horiek erabili ezinda jarraitzen dute, langileak eta Udala ez direlako ados jartzen. Badakizu zergatik dauden greban igerilekuko langileak?



■ Bai: 74 boto.
 □ Ez: 9 boto.

Ekainaren 12tik 19ra egon da inkesta honetan parte hartzeko aukera, eta guztira 83 boto jaso dira Euskal Biruseko Facebooken.

Ni naiz kiroleko langileek zehatz-mehatz zer eskatzen duten ez dakienetako bat. Hainbat bertsio entzun ditut. Horren berri izatea gustatuko litzaidake, eta ados banago, nire babesa eman, jakina. **Alba Nogales.**



URRETA burdindenda

- ✕ Etxea
- ✕ Giltzak
- ✕ Tresneria
- ✕ Sarrailagintza
- ✕ Brikolajea
- ✕ Kit altzariak
- ✕ Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI
 Ilepaindegia
 Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Hilaren 1etik 23ra:
Argazki erakusketa:
"Paisai poetikoak".
Patxi Jatoren lanak.
18:00etatik 20:00etara.
Lobiano Kulturgunean.

Hilaren 1etik 8ra:
Extremadurako
Zentroaren kultur astea:
hainbat ekitaldi.

Hilaren 4tik 7ra:
Sallabenteko jaiak:
hainbat ekitaldi.

Hilak 6:
Gazte eguna: hainbat
ekitaldi. Plazan.

**SANTIXAU
AURREKOAK**

Uztailaren 15a
- 18:30. PADEL TXAPEL-
KETA. San Pelaion.

- 19:00. Plazan, TXA-
RANGEN JOKOAK.
- 22:30. Martxoaren 8a
plazan, KONTZERTUA
Kubako D. Capricho.

Uztailaren 16a
- 17:30. Martxoaren 8a
plazan, "Mugi zaitetz!"
HAURRENTZAKO
DISKO FESTA.

- 18:30. PADEL TXAPEL-
KETA. San Pelaion.
- 19:00. Plazan, TXA-
RANGEN JOKOAK.
- 22:30. BERTSO
JAIALDIA.

Uztailaren 17a

- 18:30. PADEL TXAPEL-
KETA. San Pelaion.

- 19:00. Plazan TXA-
RANGEN JOKOAK.

- 21:00. Plazan HERRI
OGITARTEKADA.

- 22:30. Plazan, ABESTI-
LEHIAKETA.

Uztailaren 18a

- 16:00. Kiroldegietan,
ARETO-FUTBOL TXAPEL-
KETA.

- 18:30. PADEL TXAPEL-
KETA. San Pelaion.

- 19:00. Plazan, TXA-
RANGEN JOKOAK.

- 22:30. Elizako aterpe-
etan, "Zergatik praktika-
tzen dugu sexua gaztele-
raz?" UMORE BAKA-
RRIZKETA, Oihan Vega.

Uztailaren 19a

- 16:00. Kiroldegietan,
ARETO-FUTBOL TXAPEL-
KETA.

- 18:00. Plazan, PALETA
TXAPELKETA.

- 18:30. PADEL TXAPEL-
KETA. San Pelaion.

- 22:30. Plazan, PLAY-
BACK LEHIAKETA.

Uztailaren 20

- 8:00. Kiroldegietan,
ARETO-FUTBOL TXAPEL-
KETA.

- 9:00. Mallabiko
Pedro Deunaren zelaian,
TXAKURREN ERAKUSTAL-
DLEHIAKETA.

- 10:00. Plazan. ARKU-
TIRO PROBA.

- 10:30. URKO 69etan
ezetzi! X. IGOERA KON-
TROLATUA.

- 10:30. Lobianon
MAHAI eta ESTRATEGIA
JOLASAK.

- 11:00. PADEL TXAPEL-
KETA. San Pelaion.

- 11:00. Plazan, ALDIBE-
REKO ETA AZKA XAKE
PARTIDEN ERAKUSTAL-
DIA.

- 16:00. Kiroldegian,
ARETO-FUTBOL TXAPEL-
KETA.

- 16:30. Plazan, MUS
TXAPELKETA.

- 19:00. Plazan, DAN-
TZA EMANALDIA.

- 23:30. San Pelaion
Medina Azahara KON-
TZERTUA.

Uztailaren 21a

- 10:00. San Martin pla-
zan, BLOOD BOWL
TXAPELKETA.

- 10:30. San Pelaion,
IRRATIZ KONTROLATURI-
KO AUTOEN TXAPELKE-
TA.

- 10:30. Plazan. XXIV.
XAKE TXAPELKETA.

- 11:00. Anbreko indus-
trialdean TXIRRINDULARI-
TZA PROBA umeentzat.

- 11:00. San Pelaion
BOLO-PALMA TXAPELKE-
TA.

- 19:00. Plazan, MUSI-
KA ETA DANTZA JAIAL-
DIA.

Uztailaren 22a

- 17:30. Plazan, HAU-
RRENTZAKO JOLASAK
INGELEASEZ.

- 18:00. Plazan,
ERRUGBIA PROBATZERA
ETOR ZAITEZ ekitaldia
eskainiko du.

- 19:30. Plazan, Rock &
Roll KONTZERTUA
Cherry and The Ladies.

- 22:30. Plazan, Shakti
Olaizola, "Baldin bada"
ZIRKU IKUSKIZUNA.

Uztailaren 23a

- 11:00. BURUHAN-
DIAK. Plazan.

- 11:30-13:30 eta
16:00-19:00. HAU-
RRENTZAKO PARKEA
eta TAILERRAK plazan.

- 16:00. BURUHAN-
DIAK. Plazan.

- 17:30. UMEENTZAKO
TXOKOLATEJANA.
Plazan.

- 19:00. Plazan. "Kili Kili
Punk" HAURRENTZAKO
MUSIKA-IKUSKIZUNA,
Sukar taldea.

- 20:30. Plazan. APAR
JAIJA.

- 22:00. Martxoaren 8a
plazan FESTAN BLAI DJ
Txurreekin.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



ALBOKA



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lorianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel: 943 17 71 94

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hortz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Ermua Tel.: 943 030 512
 niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 · Elikagai biologikoak
 · Terapia naturalak
 · Naturopatarekin kontsultak
 · Masajeak
 · Dietistarekin kontsultak
 · Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

OSASUN GIDA

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a tí
SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKAZ eta CLINICA DENTAL
 Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI (Dra. nº 1284)
 · P.A.D.I
 · IMQ
 · SANITAS
 · DENTYRED
 · AZKARAN
 · OCASO
 943 17 04 04
 info@clnicasanpelayo.com
 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

FUB Mediku psikiatra · Psikosomatika
 Psikoterapia psikoanalitikoak
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
 Ego gain ,18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
 Bailen Kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
 furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo
 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera